

# Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta haren sektore publikoarekin elkarreragiten duten interes taldeei aplikatu beharreko jokabide-kodea

13/2022 Foru Dekretua, irailaren 13ko, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko Interes Taldeen Erregistroa sortu eta arautzen duena.

## KODE ETIKOA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa

**Zuzendaria:**

**Goizeder Manotas, Zerbitzuetako eta  
Administrazioaren Berrikuntzako eta  
Eraldaketako Zuzendari Nagusia**

**Argitalpena:**

**2023ko martxoa**

**Argitarapena:**

**Gipuzkoako Foru Aldundia  
Gobernantza Departamentua  
Zerbitzuetako eta Administrazioaren  
Berrikuntzako eta Eraldaketako  
Zuzendari Nagusia**

Gipuzkoa plaza z.g. 20004, Donostia

Tlfno. Zb. 943 113 960

[modernizazioa@gipuzkoa.eus](mailto:modernizazioa@gipuzkoa.eus)

[https://www.gipuzkoa.eus/eu/  
aldundia/zuzentasun](https://www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun)

LEGE GORDAILUA: D-93-2023

ISBN: 978-84-7907-850-8

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN ETA HAREN SEKTORE PUBLIKOAREKIN ELKARRERAGITEN DUTEN INTERES TALDEEI APLIKATU BEHARREKO JOKABIDE-KODEA

# ZIOEN AZALPENA

↗ ↗ ↗ ↗ ↗

↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗

↗ ↗ ↗ ↗ ↗



01

I. Etengabe eboluzionatzen ari den mundu batean, gero eta zorrotzagoa den gizarte batean, zeregin publikoak etengabe egokitu behar du sortzen ari diren behar, itxaropen eta erronka berrietara. Horretarako, administrazio publikoek tresna dituzte, helburu berarekin erabili behar direnak: efikazia, konfiantza eta jasangarritasun ekonomikoa finkatzea. Horrek zerbitzu publikoak eta gizartearen ongizatea hobetzea ekarriko du, herritarren ongizatea areagotuko duten politiken hedapenean

Gipuzkoako Foru Aldundia ere ez dago errealtate horretatik kanpo, eta aspalditik ari da lanean Gipuzkoako gizartearen behar eta eskakizun horiek beteko dituzten politika publiko hobek egiten eta horiek ezartzen lagunduko duten tresnak sortzen edo egokitzen. Horrekin bat etorriz, Foru Aldundia aitzindaria izan da politika publikoaren zenbait eremutan. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren Sektore Publikoaren Zuzentasun Sistema sortu zuen 2016an. Aldi berean, partaidetza sustatu zuen [azaroa ren 12ko 5/2018 Herritarren Partaidetzari buruzko Foru Arauaren bidez](#). Arau horren helburuetako bat da emakumeek eta gizonek lurraldeko gai publikoetan parte har dezaten sustatzea eta bultzatzea, foru administrazioaren funtzionamenduan partaide izan dezaten. Eta gauza bera gertatu zen foru gobernantza publikoaren esparruan Gobernu Onari buruzko [martxoaren 11ko 4/2019 Foru Arau](#) berrienarekin, zeinak sendotu nahi baitu Administrazioak herritarrekin duen harreman eredu berri bat, honako printzipio hauetan oinarritua: osotasuna, kudeaketa ona, kontuak ematea, gardentasuna eta herritarrek informazioa eskuratzeko duten eskubidea aitortzea. Demokrazian sakontzeko bide gisa gobernu ona ezartzera bideratutako eredia da.

II. Testuinguru horretan, argi dago **erantzukizun politikoa duten pertsonak**, bai eta administrazio publikoen zerbitzura daudenek ere, elkarrizketa irekia, gardena eta aldizkakoa izan behar dutela gizartearen ordezkari diren pertsona, talde, erakunde eta elkarteekin, eta interakzio hori ez dela soilik legitimoa eta herritarren partaidetzarako bidea, baizik sistema politikoen heldutasunaren sintoma ere badela, eta erabakiak hartzeko kalitatea hobetzeko tresna eraginkorra.

Hala ere, elkarrekintzak eta parte hartzeak erabakiak hobeto hartzen laguntzen dutela baieztatzeak, aldi berean, eragin hori modu etiko eta gardenean gauzatzea eskatzen du, ezinbestekoa da bi aldeek jarraibide etiko batzuk eta gardentasun eskakizun batzuk onartu eta errespetatzea, interes taldeek agintariekin dituzten kontaktu guztiek gidatuko dituztenak, interes talde jakin batzuek gaitasun handiegirik izan ez dezaten erabakien zentzuan eragiteko, hartara jardueraren integritatea eta legitimotasuna egiaztatzearren. Interes taldeen parte hartzea, modu garden eta pluralean gauzatzen bada, elkarlaneko gobernantza baten garapenean aurrera egiteko modu bat da.

Foru-sektore publikoak baditu balio, printzipio, jokabide-arau eta jarduketa-arau batzuk, bere Erakundearen Zuzentasun Sistemari ondo definituak, eta horiek ere gida izan behar dute harekin elkarreragin nahi dutenen jarduerarako eta harremanetarako. Horregatik, koherentea da interes-taldeentzat gutxieneko jokabide- eta jardura-arau batzuk ezartzea, jokabide-kode propio baten bidez. Kode hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistemari txertatuko da, beste elementu bat bezala.

## **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN ETA HAREN SEKTORE PUBLIKOAREKIN ELKARRERAGITEN DUTEN INTERES TALDEEI APLIKATU BEHARREKO JOKABIDE-KODEA**

Europako Batzordeak 2006an egindako gardentasunaren aldeko Europako ekimenari buruzko liburu berdeak interes taldeen jarduera sistema demokratikoaren alderdi legitimo gisa definitzen du. Jarduera horrek publikoa izan behar du, herritarrek informazio osoa eskuratzeko aukera izan dezaten, erakundeen eta agintarien portaeran eragiten duen guztiari dagokionez. Izan ere, Europako erakundeak onartzen du interes taldeek erabakiak hartzen parte hartu behar dutela, politikek herritarren beharrei erantzuten dietela bermatzeko, baina azpimarratzen du prozesu horrek gardena izan behar duela, kontrol egokia ahalbidetzeko eta Batasuneko erakundeek beren jardunaren kontuak ematen dituztela bermatzeko.

Ildo beretik, ELGE eta Nazioarteko Gardentasuna bezalako erakundeek dei egiten dute interes taldeen eragin jardueraren erregistroak sortzera eta gardentasun soziala sustatzera.

Eta hain zuzen ere, foru dekretu honen xedea den Interes Taldeen Erregistroak interes taldeen eragineko jarduerari buruzko informazioa emateko beharriari erantzuten dio, harreman horien gardentasuna bermatzeko, eta,aldi berean, ikuspuntu etikotik desbideratutako jokabideak prebenitzeko kontrol mekanismo eraginkor bat edukitzeko. Erregistroa, beraz, balio handiko tresna bihurtzen da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren foru Sektore Publikoaren Erakundearen Zuzentasunaren Sistemaren barruan, sektore publikoan zein pribatuan osotasun estandar handiagoak izatera behartzen baitu.

**III. Martxoaren 11ko 4/2019 Foru Arauak, Gobernu Onari buruzkoak, foru gobernantza publikoaren esparruan, bigarren tituluan, Erakundearen Zuzentasunari buruzkoan, 14. artikuluan, Interes Taldeen Erregistroaren sorrera arautzen du, eta, zehazki, haren helburua, eremua eta oinarritzko ezaugarriak **foru dekretu baten bitartez garatzeko aurreikuspena egiten du.****

Aipatutako 14. artikuluan xedatutakoa betez, foru dekretu hau garatzen da, zeinak hogeita bi artikulua baititu, lau titulutan banatuta, xedapen gehigarri bat eta bi amaierako xedapen.

Foru dekretu honen erregulaziotik kanpo geratzen da 14. artikuluan bigarren apartatuan jasotako aurreikuspena, batzarkideekiko harremanei buruzkoa, ez baitu hura arautzeko eskumena foru gobernuak; izan ere, horren garapena Batzar Nagusietako organo eskudunari dagokionez.

Xedapen orokorrei buruzko I. Tituluak arautzen ditu foru dekretuaren xedea eta Erregistroaren izaera juridikoa, helburua, jarduteko eremu objektiboa eta subjektiboa, eta izen emateko betebeharra, bai eta Gobernu Onaren arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiari atxikitzea.

Bestalde, II. Tituluak, Interes Taldeen Erregistroari buruzkoak, honako hauei buruzko, xedapen hauek jasotzen ditu: Erregistroaren edukia, inskripzioaren ondorioak eta betebeharrak, inskripzio eta izapidetze-prozesua, haren oinarri den plataforma eta informazioaren eguneratzeko betebeharra, inskripzioaren kontrola, egiaztapena eta ezerezteak, baita alertak eta salaketek ere.

III. Tituluak, Jokabide Kodea, Erregistroan inskribatuta dauden interes talde guztiek bete beharreko erantzukizunpeko adierazpena eta jokabide eta jarduketa arauak arautzen ditu.

IV. Tituluak Erregistroaren funtzionamenduari buruzko urteko txostena egiteko betebeharra jasotzen du, eta txosten hori jaso beharko da 4/2019 Foru Arauaren 36. artikuluan xedatutako urteko gardentasun txostenean.

Xedapen gehigarri bakar batek Batzar Nagusiekin eta toki erakundeekin lankidetzan aritzeko mekanismoak aurreikusten ditu, nor bere eremuan interes taldeen gardentasuna sustatzeko.

Azkenik, amaierako lehen xedapenak ahalmena ematen dio Gobernantza Departamentuko titularrari foru dekretua garatzeko, eta bigarrenak foru dekretu honek indarra hartzea finkatzen du.

↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗

↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗

↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗

# XEDAPEN OROKORRAK



02

## 1. artikulua. Xedea.

Foru dekretu honen xedea da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Interes Taldeen Erregistroa sortzea eta arautzea, 4/2019 Foru Arauak, martxoaren 11koak, Gobernu Onari buruzkoak, foru gobernantza publikoaren esparruan, **14. artikuluan xedatutakoaren arabera eta Foru Administrazioarekin eta haren sektore publikoarekin harremana duten interes-taldeek nahitaez bete beharreko Jokabide Kode bat onartzea.**

## 2. artikulua. Izaera juridiko.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko Interes Taldeen Erregistroa administratiboa da, publikoa eta doakoa.
2. Erregistroak gordeko duen informazioa eskuragarria, ulergarria, formatu irekikoa eta berrerabilgarria izango da, sexuaren arabera bereizitako datuekin, eta, gardentasun printzipioa aplikatuz, eskuragarri egongo da Foru Aldundiaren gardentasun atarian.
3. Erregistroaren informazioa bi hizkuntza ofizialetan eskainiko da.
4. Erregistroko datuen eta informazioaren publizitateari gardentasunaren eta datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen araudia aplikatuko zaio.

## 3. artikulua. Helburua.

Interes Taldeen Erregistroa sortu eta arautzeak helburu hauek ditu:

- » Interes taldeen **eragin jardueraren inskripzioa eta kontrola.**
- » Interes taldeen jardueren **gardentasuna eta kontu ematea hobetzea, haien jardueri publizitatea emanez**, bereziki hauei: agintariekin eta kargu publikoekin, zerbitzuburuaren erantzukizuna duten funtzionarioekin eta foru sektore publikoaren zerbitzura dauden langileekin edo horien gobernu organoetako kideekin izandako bilera, kontaktu eta topaketak; jorratutako gaiekin lotutako komunikazioa; txostenak; eta bestelako ekarpenak.
- » Interes taldeen **jokabide eta jarduera arauak ezartzea**, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistemaren balio eta printzipioen arabera.

## 4. artikulua. Aplikazio eremu subjektiboa.

- » Foru dekretu honen xedapenak honako hauei aplikatzen zaizkie: **Agintariak, kargu publikodunak eta parekoak, eta zerbitzuburuaren erantzukizuna duten foru administrazioiko langileak**, eta antzeko erantzukizun maila duten foru **sektore publikoko gainerako erakundeetako langileak**. Era berean, foru dekretu honen aplikazio eremuan sartzen dira agintaritzak edo kargu publiko bat



izan gabe **foru sektore publikoko erakundeetako** gobernu organoetako kide diren pertsonak.

- » Interes taldeak, foru dekretu honen ondorioetarako, honako hauek dira: **persona fisikoak eta antolakuntzak, plataformak eta sareak**, zeinek eragina duten jarduerak egiten baitituzte, nortasun juridikoa izan edo ez, erabaki publikoetan edo Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren politika publikoak proposatu, egin edo aplikatzerakoan eragina duten jarduerak egiten baitituzte, beren edo hirugarren pertsonen interesen defentsan.

## **5. artikulua. Aplikazio eremu objektiboa.**

**1. Erregistroaren aplikazio eremu objektiboak barnean hartzen ditu arauak eta politika publikoak egiteko edo aplikatzeko eta erabakiak hartzeko prozesuetan zuzenean edo zeharka eragiteko helburuarekin egindako jarduera guztiak**, erabilitako kanala edo bitartekoa edozein dela ere, barne hartuta foru dekretu honen 4.a) artikuluan aipatutako pertsonekin bilera, kontaktu eta topaketak egitea, bai eta ekarpenak eta borondatezko parte hartzea ere arau- proposamenei, egintza juridikoei edo beste kontsulta batzuei buruzko kontsulta ofizialetan.

**2. Foru dekretu honen ondorioetarako, "zuzenean eragitea" da komunikazioz eta harreman zuzena** izanez eragitea foru administrazioarekin eta haren sektore publikoarekin; eta "zeharka eragitea" da bitarteko bektoreak erabiliz eragitea; adibidez, **komunikabideen bidez, iritzi publikoaren bidez, hitzaldien bidez, foru erakundeari zuzendutako gizarte ekitaldien bidez.**

**3. Zuzeneko edo zeharkako eragina duten jardueratzat hartuko dira:**

- » Taldearen jardueren xede diren proposamen arau-emaileak eta politikokoak.
- » Proposamen arau-emaileei, politika publikoei edo bestelako kontsultei buruzko kontsultetan borondatez parte hartzea.
- » Informazio edo eztabaidarako materiala egitea eta jarrera hartzeko dokumentuak prestatu, zabaldu eta komunikatzea.
- » Ekitaldi, hitzaldi, bisita edo ekitaldi sozialak antolatzea, foru dekretu honen 4.a) artikuluan aipatutako pertsoneri gonbidatzen bazaie.
- » Dekretuaren 4.a) artikuluan aipatzen diren pertsonekin egindako bilerak, kontaktu eta topaketak.
- » Adituen taldeetan edo Aholku Kontseiluetan parte hartzea
- » Izaera berekoak diren bestelakoak.

**4. Foru dekretu honen ondorioetarako ez dira eragin jardueratzat hartuko:**

- » **Administrazio eta zerga prozeduren eraginpeko interesak defendatzeko** aholkularitza juridikoa ematera mugatzen diren jarduerak, egoera juridiko

partikular bati buruz hitz egitera bideratutakoak eta legeak babestutako adiskidetze edo bitartekaritza jarduerak.

- » Erregistro honen menpe dauden pertsona fisikoek **izaera partikularreko gaiengatik edo interes orokorreari eragin diezaieketen garrantzi ekonomiko, sozial edo publikorik ez izateagatik dauzkaten harremanak.**
- » **Zuzenbide publikoko** korporazioek beren funtzio publikoa betez egiten dituzten jarduerak, horregatik eragotzi gabe eremu objektiboan sartutako jardueratzat hartzea beste eginkizun batzuk betetzen dituztenean.
- » Protokolo hutsezko bilerak eta egintzak.

## **6. artikulua. Inskribatzeko betebeharra.**

**1.** Foru dekretu honen 4. b) artikuluan deskribatutako interes talde guztiak Erregistroan **inskribatu behar dira**. Inskripzio hori egin ezean, **ezingo dute bilerarik, kontakturik edo topaketarik izan** foru dekretu honen 4 a) artikuluan aipatutako pertsonekin, hori 5. artikuluko 1, 2 eta 3. atalean araututako aplikazio eremu objektiboan sartzen diren jarduerari buruzkoak badira

**2.** Inskripzioa egin beharko da egitekoa den bilera dagokion agenda publikoan **argitaratu aurretik**, Gobernu Onaren 4/2019 Foru Arauaren 31. artikuluko lehenengo paragrafoko f) letran ezarritakoari jarraikiz.

**3.** Foru dekretu honen 4. a) artikuluan aipatutako pertsonekin egiten diren bilerak, non eta ez diren agintaritza edo kargu publiko eta ez duten agenda publikorik, interes taldeak urtero aurkeztu beharko duen **jarduera memorian** jasoko dira, 10. artikulua lehen paragrafoaren f) letran xedatutako arabera..

**4.** Urgentziazko arrazoiengatik alde aurretik inskribatzea ezinezkoa denean, bilera egin eta hamar eguneko epean eskatu beharko da inskripzioa. Agendan bileraren data jasoko da.

**5.** Foru dekretu honen 4.a) artikuluan aipatutako pertsonen **erantzukizuna** da Erregistroan alde aurretik inskribatuta dauden pertsona eta erakundeekin biltzen direla ziurtatzea, bileren xedea haren mendeko jarduerak direnean; beraz, **ez dira bilduko erregistratuta ez dauden interes taldeekin** edo bileren informazioa argitaratzeko murriztapenak jartzen dituztenekin.

Nolanahi ere, Erregistroaren ardura duen organoak, kargu publikodunen agendetan irregulartasunak daudela ikusten badu, horren berri eman beharko du, kargu publikodunak pertsona horri bilera egin aurretik inskripzioa eskatzeko.

## **7. artikulua. Atxikipena eta Erregistroaren organo arduraduna.**

**1.** Erregistroa gobernu onaren arloko eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzendaritza nagusiari atxikitzen zaio.

**2.** Erregistroa antolatzeko eta kudeatzeko ardura duen zerbitzuak izango du Gobernu Onaren eredia sustatzeko eta gardentasun politikak garatzeko eginkizuna.

1. Erregistroa gobernu onaren arloko eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzendaritza nagusiari atxikitzen zaio.

2. Erregistroa antolatzeko eta kudeatzeko ardura duen zerbitzuak izango du Gobernu Onaren eredia sustatzeko eta gardentasun politikak garatzeko eginkizuna.

1. Erregistroa gobernu onaren arloko eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzendaritza nagusiari atxikitzen zaio.

2. Erregistroa antolatzeko eta kudeatzeko ardura duen zerbitzuak izango du Gobernu Onaren eredia sustatzeko eta gardentasun politikak garatzeko eginkizuna.

1. Erregistroa gobernu onaren arloko eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzendaritza nagusiari atxikitzen zaio.

2. Erregistroa antolatzeko eta kudeatzeko ardura duen zerbitzuak izango du Gobernu Onaren eredia sustatzeko eta gardentasun politikak garatzeko eginkizuna.

1. Erregistroa gobernu onaren arloko eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzendaritza nagusiari atxikitzen zaio.

2. Erregistroa antolatzeko eta kudeatzeko ardura duen zerbitzuak izango du Gobernu Onaren eredia sustatzeko eta gardentasun politikak garatzeko eginkizuna.

1. Erregistroa gobernu onaren arloko eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzendaritza nagusiari atxikitzen zaio.

2. Erregistroa antolatzeko eta kudeatzeko ardura duen zerbitzuak izango du Gobernu Onaren eredia sustatzeko eta gardentasun politikak garatzeko eginkizuna.

1. Erregistroa gobernu onaren arloko eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzendaritza nagusiari atxikitzen zaio.



# INTERES TALDEEN ERREGISTROA



# 03

## 8. artikulua. Erregistroaren edukia.

Interes Taldeen Erregistroak honako informazio publiko hau jaso beharko du, gutxienez:

- » Inskribatutako taldeen zerrenda, kategorien arabera ordenatuta.
- » Inskribatzeko emandako informazioa, 12. artikuluaaren arabera.
- » Interes taldearen altaren edo bajaren egoera eta data, eta azken aldaketarena.
- » [20. artikuluan](#) aurreikusten den erantzukizunpeko adierazpena.

## 9. artikulua. Inskripzioaren ondorioak.

Erregistroan inskribatzeak ahalmen hauek ematen ditu:

- » Bileran, kontaktu eta topaketak izatea foru dekretu honen 4. a) artikuluan aipatutako pertsonekin, foru dekretu [honen 5. artikuluan ezarritako helburuekin](#).
- » Erregistro honetan inskribatutako interes talde izatearen erabilera publikoa egitea.
- » Prozedura zehaztetan parte hartu dutela berariaz jasotzea.
- » **Adierazitako interes arloekin zerikusia duten arauak eta politika publikoak** egiten parte hartzea. **Parte har dezaten errazteko**, Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren ekitaldi publikoei eta kontsulta publikoei buruzko abisu automatikoak jasotzeko sortzen diren banaketa zerrendetan sartuko dira, deklaraturako interes arloei dagokienez.
- » Erregistro horretako interes talde gisa identifikatzeko egiaztatzea lortzea.

## 10. artikulua. Inskripziotik eratorritako betebeharrak.

1. Erregistroan inskribatzeak honako **betebehar** hauek dakartza:

- » Inskripziorako aurkeztutako datuen publizitatea onartzea.
- » Emandako datuak egiazkoak direla bermatzea.
- » Erregistroko informazioa uneoro eguneratuta dagoela ziurtatzea, [14. artikuluan](#) jasotzen denaren arabera.
- » [21. artikuluan](#) aurreikusten diren jokabide eta jarduketa arauak betetzea onartzea.
- » [15. artikuluan](#) deskribatzen den kontrol eta egiaztapen erregimena onartzea.

» Erregistroaren organo arduradunari, urte bakoitzeko lehen hilabetean, txosten bat bidaltzea, arau-proposamenei edo politika publikoei buruzko kontsultetan egindako ekarpenei eta borondatezko parte-hartzeari buruz eta aurreko urtean foru-dekretu honen 4.a) artikuluan aipatutako pertsonekin izandako bilera, harreman eta topaketei buruz. Txosten horretan adierazi beharko da nortzuek parte hartu duten eta zein den interes arloa edo zein diren arloak, inskripzioan bat baino gehiago adierazi bada.

**2.** Ezarritako betebeharrak **ez betetzeak** inskripzioa aldi baterako etetea edo ezereztatzea ekar dezake, foru dekretu honen 17 eta 18. artikuluetan xedatzen denaren arabera.

## **11. artikulua. Plataforma elektronikoa.**

**1.** Erregistroa kudeatzeko eta izapidetzeko prozedura guztia bitarteko elektronikoen bidez egingo da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera.

**2.** Foru Aldundiak bere egoitza elektronikoa Erregistroa kudeatzeko plataforma bat gaituko du bere egoitza elektronikoa. Plataforma horrek, Erregistroaren berezko edukiez gain, honako hauek jasoko ditu:

» Erregistratutako taldeek sinatzen dituzten jokabide eta jarduketa arauak.

» Foru dekretu honen 10. artikuluko lehenengo paragrafoko f) letran deskribatutako urteko txostenak.

**3.** Plataformak interes taldeek egindako eguneratze eta berrikuspen guztien erregistroa gordeko du, eta haien trazabilitatea bermatuko du.

**4.** Plataformak gune publiko bat izango du Erregistroko informazioa kontsultatzeko, eta gune pribatu bat, interes taldeek inskripzio eskaerak egiteko eta datuak eguneratzeko.

**5.** Espazio pribatura sartzeko, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 9. artikulutik 11. artikulura aurreikusitako identifikazio eta sinadura sistemen bidez egin beharko da.

**6.** Erregistroa kudeatzeko plataformak elkarreragingarritasun irizpideak izango ditu interkonexioa bermatzeko, eta, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan sor daitekeen interes taldeen erregistroarekin integratzea edo federatzea bermatzeko.

**7.** Plataformak aktibo edukiko du inskripzioa ezeztatzen zaien interes taldeen informazioa, bost urtez, ezeztatzen den egunetik kontaktzen hasita. Horiek igarotakoan, historiko batean sartuko dira hamar urtez.

## 12. artikulua. Izena emateko eta ebazteko prozedura.

1. Inskripzio eskaera egin beharko da interes taldeak eskatuta, Interes Taldeen Erregistroaren Plataformako espazio pribatuan, horretarako ezarriko den formulario elektronikoa bidez.

2. Erregistroan honako informazio hau aitortu behar da:

- » Pertsona edo erakundearen datuak, egoitza sozialaren helbidea, telefonoa, helbide elektronikoko helbidea eta, hala badagokio, web-orria.
- » Izena ematen duen erakundearen legezko arduradunaren eta harremanetarako pertsonaren datu pertsonalak.
- » Erakundearen xede eta helburuen deskribapena eta, I. kategoriako erakundeen kasuan, bezeroen izenean ordezkartzak bere gain hartzen dituen xede eta helburuen deskribapena.
- » Jarduera eta interes arlo edo arloak.
- » Interes taldearen kategoria, foru dekretu honen eranskinean jasotzen denaren arabera.
- » Inskripzioaren edo azken funtsezko aldaketaren aurreko ekitaldian foru sektore publikoko erakundeetatik jasotako funts publikoen zenbatekoari eta iturriari buruzko informazio ekonomikoa; informazio hori urtero eguneratu beharko da, horretarako prestatutako formularioaren bidez.
- » Inskribatzea egiten duen pertsonak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanak izateko hautatzen duen lehentasunezko hizkuntza ofiziala.

3. Sor daitezkeen interes gatazkak argitzeko, berariaz adierazi beharko da interes taldea ordezkatzuko duten pertsonak:

- » Azken bi urteetan Foru Aldundian edo foru sektore publikoaren erakunderen baten lan egin ote duten.
- » Lehen edo bigarren mailako ahaidetasuna ote duten Foru Aldundiko edo sektore publikoko erakundeetako agintari eta kargu publiko edo antzekoekin, eta foru sektore publikoko erakunderen bateko gobernu organoetako kideekin.

4. Eragina duen jarduera hirugarren pertsonen kontura egiten bada, eragina duen jarduera zein pertsonarentzat egiten den adierazi beharko da.

5. Nortasun juridikorik gabeko batasunen kasuan, batasun hori osatzen duten pertsona fisiko edo juridikoen egiaztagiria aurkeztu beharko da; pertsona fisiko edo juridiko horiek beren gain hartuko dute interes taldeak garatutako jarduerengatik erantzukizun solidarioa.

6. Eskabidearekin batera, 20. artikuluan arautzen den erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar da.



**7.** Eskaerak ez baditu eskatutako baldintzak betetzen, edo akatsak edo omisioak baditu, Erregistroaren organo arduradunak eskatzaileari eskatuko dio akatsak zuzentzeko, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**8.** Erregistroan inskribatzeko eskabidearen ebazpena Erregistroaren ardura duen zuzendaritza nagusiak emango du, eta hogeita hamar eguneko gehieneko epean jakinarazi beharko da, eskaera eta eskatutako dokumentazioa behar bezala aurkezten denetik zenbatzen hasita.

**9.** Epe horretan esanbidezko ebazpena jakinarazten ez bada, inskripzioa baietsitzat joko da, salbu eta agiriak zuzentzeko edo argitzeko errekerimendua egin delako eteten denean.

**10.** Ebazpen horrek ez dio amaiera ematen administrazio bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke gobernu onaren arloko eskumenak dituen departamentuko diputatu titularri, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

### **13. artikulua. Beste foru erregistro batzuekiko harremana**

Erregistroaren ardura duen organoak beste foru erregistro batzuetan egon eta foru dekretu honen [4. artikuluko b\)](#) atalean jasotako subjektuak diren taldeak Interes Taldeen Erregistroan sartzea bultzatuko du.

### **14. artikulua. Informazioa eguneratzea.**

**1.** Inskribatutako taldearen erantzukizuna da Erregistroarako emandako informazioa eguneratzea, bai eta Erregistroan jasotako edozein datu edo konpromiso aldatzea ere, 10. artikuluko lehengo paragrafoko c) letran adierazitakoaren arabera.

**2.** Aldaketak komunikatu behar dira hilabeteko epean aldaketa gertatzen denetik, eta Interes Taldeen Erregistroaren plataforma erabiliz egingo dira.

**3.** Interes taldeek, halaber, urtero baieztatu beharko dute Erregistroan dagoen informazioa eguneratuta dagoela eta plataforman jaso beharko dute informazio hori.

### **15. artikulua. Kontrola eta egiaztapena.**

**1.** Inskribatutako interes taldeen informazioa ofizioz kontrolatu eta egiaztatu ahal izango da, bai eta hirugarrenen eskariz ere.

**2.** Erregistroaren ardura duen organoak ausazko kontrolak egingo ditu aldian-aldian, arduradunek aitortutako datuen egiazkotasuna egiaztatzeko. Akatsen bat atzematen bada, errekerimendua egin beharko dio deklarazio egileari, hamabost eguneko epean zuzen dezan, eta adieraziko dio errekerimenduari jaramonik egiten ez bazaio inskripzioa eteteko edo, hala badagokio, deuseztatzeko prozedura hasi

ahal izango dela. Epe horretan bertan, deklarazio egileak egokitzen jotzen dituen alegazioak egin edo dokumentuak aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta uste badu ez dela bidezkoa datuak zuzentzea.

**3.** Erantzukizunpeko adierazpena edo jokabide eta jarduketa arauak ez betetzeak, faltsutasunak, lankidetzarik ezak edo Erregistroan inskribatzeko eskubidea ematen duten baldintzak betetzen direla egiaztatzeako dokumentazioa ez aurkezteak, inskripzioaren etendura edo ezereztatzea ekarriko dute.

## **16. artikulua. Alertak eta salaketak.**

**1.** Edozein pertsonak aurkez dezake ustezko ez betetzeari buruzko idazkia, alerta bidezkoa izan daitekeena, ustez informazioan akats bat egon dela jakinarazi behar denean, edo salaketa bat, jokabide eta jarduera arauak bete ez direla uste bada.

**2.** Erregistroaren organo arduradunari aurkeztuko zaio alerta idazkia, eta idatziaren oinarri den informazioa edo dokumentazioa aurkeztu beharko da. Kasu horretan, organo eskudunak egiaztatuko ditu, 15. artikuluan 2. paragrafoan aurreikusitako prozedurari jarraituz.

**3.** 21. artikuluan jasotako jokabide eta jarduera arauak bete ez izanari buruzko salaketak Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordean aurkeztuko dira.

## **17. artikulua. Inskripzioa etetea.**

### **1. Erregistroan inskripzioa eteteko arrazoiak dira:**

- » Erregistroan inskribatzeko eskubidea ematen duten baldintzak betetzen direla **egiaztatzeako behar den dokumentazioa** aurkezten ez bada edo horretan laguntzen ez bada.
- » 12. artikuluan 2. paragrafoan jasotako daturen bat ez jakinaraztea.
- » Egindako bilerei buruzko txostena, 10. artikuluko lehenengo paragrafoko f) letran jasotakoa, ez bidaltzea.
- » 15. artikuluko 2. paragrafoko kontrol eta egiaztapen lanetan antzemandako datuen egiazkotasun akatsak ez zuzentzea.
- » Ez-betetzeak eta inskribatzeko eskubidea ematen duten betekizunak, 15. artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitakoak, egiaztatzearekin lotutako beste ekintza batzuk.

**2.** Eteteko, dagokion prozedura izapidetu beharko da. Espediente horretan, nolana ere, entzunaldia emango zaio pertsona fisiko edo juridiko interesdunari, eta Erregistroaren ardura duen zuzendaritza nagusiak ebazpen arrazoituaren bidez erabakiko du. Ebazpenak etenduraren ondorioak eta iraupena zehaztu beharko ditu, bai eta etendura eragin zuten inguruabarrak zuzentzeko epea ere.

## **18. artikulua. Inskripzioa ezeztatzea.**

### **1. Erregistroan inskripzioa ezerezteko arrazoiak dira:**

- » Eskatzaileak berariaz uko egitea.
- » Pertsona fisikoaren heriotza edo sorturiko ezgaitasuna.
- » Nortasun juridikoa azkentzea.
- » Jarduera antolatzeko moduak desegitea.
- » Inskripzio eskubidea eskuratzeko baldintzak gerora ez betetzea.
- » Informazioa eguneratzeko betebeharrari buruzko foru dekretu honen **17. artikuluan** jasotako etete ebazpena, behar den moduan eta epean, zuzentzeko betebeharra ez betetzea.
- » Erantzukizunpeko adierazpena edo jokabide eta jarduketa arauak ez betetzea.

**2.** Ezereztatzea ofizioz edo interesdunak eskatuta egin daiteke, eta interesdunak Interes Taldeen Erregistroaren plataformaren bidez izapidetu beharko du baja. Ofizioz izapidetzen bada, aurreko zenbakiko e), f) eta g) letratan adierazitako arrazoiengatik, bermatu egin behar da, izapide saihestezin gisa, interesdunari alde aurretik entzutea. Inskripzioa g) letran jasotako kasuan oinarrituta ezeztatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordearen ebazpena beharko da.



**3.** Nolanahi ere, ezereztatzeko ebazpena gehienez ere ezereztatzeko prozedura hasten denetik hilabeteko epean jakinarazi beharko zaio interesdunari.

## **19. artikulua. Etetearen eta ezereztatzearen ondorioak.**

Erregistroko inskripzioa aldi baterako eteten bada edo behin betiko ezeztatzen bada, ezin izango da bilerarik, kontakturik edo topaketarik egin foru dekretu honen 4.a) artikuluan aipatutako pertsonekin, hori **5. artikuluko** 1, 2 eta 3. atalean araututako aplikazio eremu objektiboan sartzen diren jardueri buruzkoak badira.



# JOKABIDE KODEA



# 04

## 20. artikulua. Erantzukizunpeko adierazpena.

1. Erregistroko informazioa inskribatzeko eta eguneratzeko eskabideekin batera aurkeztu behar da erantzukizunpeko adierazpena, interes taldeko ordezkariak behar bezala sinatuta. Erantzukizunpeko adierazpena sinatzean, pertsonak edo interes taldeak bere gain hartzen du, bere erantzukizunpean, informazioaren egiazkotasuna, eguneratuta mantentzeko konpromisoa eta inskripzioak dakartzan betebeharren onarpena.

2. Erantzukizunpeko adierazpenean argi eta garbi jasoko da jokabide eta jarduera arauak ulertu eta onartu direla, eta Erregistroan inskribatzeko ezinbesteko eta aurretiazko betekizuna dela.

## 21. artikulua. Jokabide eta jarduera araua.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistemak biltzen dituen balio, printzipio eta jokabide arauak inspiratzen dituzte, oro har, Erregistroan inskribatzen diren interes taldeentzat aurreikusitako jokabide eta jarduera arauak.

2. Erregistroan inskribatutako interes taldeak, inskribatu aurretik, adierazi behar du, indarreko legeria betetzeaz gain, honako jokabide eta jarduketa arau hauek berariaz betetzeko **konpromisoa** hartzen duela:

- » Portaera zuzenarekin jardungo du bere jardueraren garapenean, eta **bizikidetz, elkartasuna, tolerantzia eta elkarrekiko errespetua nagusi diren gizartea indartzen lagunduko du.**
- » Pertsonak, bai herritarrekin bai administrazio publikoen zerbitzura dauden pertsonekin dituzten harremanetan, **merezi duten zuzentasunez eta errespetuz tratatuko ditu**, eta ez du erabiliko mespretxuzko hitzik edo diskriminazio praktikarik (sexua, No, ideologia, sexu orientazioa, arraza, desgaitasuna edo beste edozein).
- » Garden jardungo du, haien arduradunei edo gobernu organoei eta haien osatzen dituzten pertsonen publizitatea emanez, balizko edozein interes gatazka antzeman ahal izateko; eta betebeharreko subjektu izateagatik sor daitezkeen **gagentasun** betebeharrak beteko ditu, Gobernu Onari buruzko 4/2019 Foru Arauaren 2. artikulua 3. apartatua ezarritakoaren arabera.
- » **Erregistroan inskribatuta daudela zintzotasunez erabiliko du**, eta ez du erabiliko hemen jasotako balio eta printzipioen aurkako edozein egoera edo jarduera sortzeko.
- » Inskribatuta egoteak inola ere ez dakar pribilegio egoerarik beste pertsona, talde edo erakunde batzuekin alderatuta, bereziki kontratazio prozedurei eta laguntzak edo dirulaguntzak emateari dagokienez, eta, beraz, hirugarrenei nahasmena eragin diezaiekeen edozein iruzkin **saihestu beharko du**, eta ez du horrelakorik iradokitzen duen egoerarik sortu behar.

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN ETA HAREN SEKTORE PUBLIKOAREKIN ELKARRERAGITEN DUTEN INTERES TALDEEI APLIKATU BEHARREKO JOKABIDE-KODEA**

- » Ez du inolako oparirik, gonbidapenik, bidaiarik edo antzeko onurarik sustatuko, baldin eta zalantzan jartzen badu foru sektore publikoaren zerbitzura dauden kargu publikodunen eta langileen zintzotasuna edo **erabaki hartzeetan objektibotasuna** baldintzatu dezakeen edo baldintzatu dezakeen itxura ematen badu.
- » **Jokabide eta jarduketa arau hauen oinarrian dauden balioak eta printzipioak urratzen dituzten edo ohoregabeak izan daitezkeen bitartekoen bidez informazioa lortzea edo erabakietan eragitea **saihestu behar du**.**
- » **Ez du ezagututako informazio pribilegiaturik zabaldu behar** kargu publikoekin edo foru sektore publikoaren zerbitzuko langileekin izandako bileren, kontaktuen edo topaketen ondorioz.
- » Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistemari jasotako **balio eta printzipioen** aurka doan edozein jokabide **saihestu behar du** uneoro.
- » Ordezkatutako pertsona edo erakundeei jokabide arau horien **berri eman behar die**, bai eta arau horiek betetzeko hartutako konpromisoaren berri ere.
- » Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema osatzen duten jokabide koderen baten aplikazio eremuaren barruan badaude, kode horietan adierazitako **balio, printzipio, jokabide eta jarduera arau** eta zuzentasun esparru **espezifikoak** ere bete beharko ditu.
- » Hemen deskribatutako **jokabide eta jarduketa balio, printzipio eta arauak** dira erregistratutako pertsonen eta interes taldeen bete behar duten **gutxieneko estandar etikoa**, baina interes talde horiek konpromiso etiko zorrotzagoak har ditzakete, eta, nahi izanez gero, hori jasota gera daiteke Erregistroko fitxan.

» »

» »

» »

» »

» »

» »

» »

» »

» »

» »

» »

» »

» »

» »



# JARDUERA TXOSTENA

# 05

## 22. artikulua. Jarduera txostena.

1. Interes Taldeen Erregistroaren jarduera eta funtzionamendua, Gobernu Onari buruzko 4/2019 Foru Arauaren 36. artikuluaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak arau horren betetze mailari buruz egin behar duen urteko txostenean islatuko da. Txosten hori Foru Diputatuen Kontseiluari igorri behar zaio eta gardentasunaren atarian argitaratuko da.

2. Aipatutako txostenak, Interes Taldeen Erregistroari dagokionez, informazio hau jaso beharko du, gutxienez:

- » Erregistroaren jarduera eta funtzionamendua.
- » Kontrol eta egiaztapen jarduketan emaitza.
- » Inskribatutako taldeekin eta intereseko arloekin egindako bileren laburpen estatistikoa. Txosten horretan, **datuak sexuaren arabera bereizita** aztertu beharko dira.

### **Xedapen gehigarri bakarra. Lankidetzan lurralde historikoko Batzar Nagusiekin eta tokiko erakundeekin.**

Gipuzkoako Foru Aldundia lankidetzan arituko da lurralde historikoko Batzar Nagusiekin eta tokiko erakundeekin, beren eremuetan interes taldeen gardentasuna sustatzeko.

### **Amaierako lehen xedapena. Arau-garapena.**

Gobernantza Departamentuko titularrari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau garatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

### **Amaierako bigarren xedapena. Indarrean jartzea.**

Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabetera jarriko da indarrean.

*Donostia, 2022ko irailaren 13an*

↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗

↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗

↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗ ↗

# **ERANSKINA**

## **KATEGORIAK ETA AZPIKATEGORIAK**

### **I. Aholkularitza profesionalak, bulego kolektiboak eta pertsona bakarrekoak**

1.1 Aholkularitza profesionalak

1.2 Bulego kolektiboak

1.3 Pertsona bakarreko bulegoak

### **II. Enpresa sektorea eta elkarte oinarrikoa**

1.1 Enpresak eta enpresa taldeak

2.2 Zuzenbide publikoko korporazioak

2.3 Lanbide, enpresa eta sindikatu elkarteak

2.4 Beste erakunde batzuk: enpresei lotutako komunikabideak eta ekitaldiak antolatzen dituzten erakundeak

### **III. Gobernuz kanpoko erakundeak**

3.1 Fundazioak eta elkarteak.

3.2 Irabazi asmorik gabeko erakundeak, plataformak eta gobernuz kanpoko sareak eta antzekoak.

### **IV. Gogoeta taldeak, ikerketa erakundeak eta erakunde akademikoak**

4.1 Hausnarketa taldeak eta ikerketa erakundeak

4.2 Erakunde akademikoak

### **V. Elizak eta komunitate erlijiosoak ordezkatzten dituzten erakundeak**



**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa